

ATAUNGO

UDAL ARTXIBO HISTORIKOAREN

ARAUTEGIA



ATAUNgo UDALA

ATAUNGO UDAL ARTXIBO HISTORIKOAREN ARAUTEGIA

Ataungo Udal Artxibo Historikoa behar bezala antolatua eta erabilia izan dadin, ondorengo arautegia betetzea nahitaezkoa izango da.

1. ARTIKULUA- Ataungo Udal Artxibo Historikoa Udaletxeko bigarren solairuko gela batean dago kokatua eta aldamenean kontsulta aretoa.

2. ARTIKULUA- Udal Artxibo Historikoa zerbitzu publikoa denez gero, edozein pertsonak kontsulta egiteko erabil dezake.

3. ARTIKULUA- Udal Artxibo Historikoa erabiltzeko ordutegia udaletxeko idazkariak lan egiten dituen larunbatetan goizeko 09:30etatik eguerdiko 12:30etara izango da.

4. ARTIKULUA- Udal Artxibo Historikoa erabili nahi duenak, Udalak horretarako prestatu duen eskaera orria aurrez bete beharko du. Bertan bere datu pertsonalak jarriz gain, bere ikerketa gaiaren berri eman beharko du.

5. ARTIKULUA- Udal Artxibo Historikoa erabiltzeko eskaera orria bi eratara egin daiteke: www.ataun.net bidez edo Ataungo udal bulegoetan eskura egongo den inprimakia betez.

6. ARTIKULUA- Artxiboko erabiltzaileak dokumentu digitalizatuak kontsultatuko dituzte. Artxiboko dokumentu originalen bat kontsultatu nahi bada, aldeztu aurretik eskaera orrian arrazoitu beharko da horren zergaitia. Alkatearen esku egongo da eskaera onartzea ala ez.

7. ARTIKULUA- Artxiboko erabiltzaileak dokumenturen bat kopiatu nahiko balu, hori udal bulegoetan egitea posible izango luke. Kopiatu nahi diren orri kopurua 5 baino gutxiago izango balitz, ez litzateke ezer ordainduko. Orri kopurua 5etik gora denean, orriko 10 zentimo kobratuko da.

8. ARTIKULUA- Kontsulta aretotik inoiz ez da jatorrizko dokumenturik aterako.

Ataunen, 2008ko urtarrilaren 29an